

Karmen jaietako kartel lehiaketa 2019

OINARRIAK

- Lehiaketa honetan nahi duenak parte har dezake, taldean zein bakarka.
- Egile bakoitzak gehienez 3 kartel aurkez ditzake. Egile batek kartel bat baino gehiago aurkezten baditu, kartel bakoitzak bere goitizena izan beharko du.
- Lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dira.
- Kartelean pertsonak agertzen badira, genero ikuspegia errespetatu beharko da.
- Kartelean agertu beharreko testua: **KARMEN JAIK 2019. Markina-Xemein**

Lanen formatua:

- Teknika: librea, edozein teknika onartuko da.
- Neurria: A3 (29 zm x 42 zm). Diseinu bertikala izan behar da.
- Formatua: Euskarri gogorra edo papera / Digitala (JPG, Photoshop programarekin bateragarria).

Lanak non eta nola aurkeztu:

- Non: Markina-Xemeingo Udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan. Goikoportala 3, 48270 Markina-Xemein (Jendaurreko ordutegia: asteleheneetik ostiralera 08:15 - 14:30). Uhagon kulturguneko bulegoan (goizez: 10:00 - 13:30; arratsaldez: astearte eta asteazkenak, 15:30 - 19:00).
- Lanak egilearen izenik gabe aurkeztuko dira.
- Kartelaren atzeko aldean goitizena bat idatzi beharko da. Kartelarekin batera gutun-azal bat aurkeztuko da. Gutun-azalaren kanpoaldean "Karmen jaiak 2019 kartel lehiaketa" eta kartelaren goitizena bera idatziko da. Gutun-azalaren barruan, egilearen datuak: izen-abizenak, helbide osoa eta telefonoa.
- Lanak euskarri digitalean aurkezteko: Lana pendrive/usb baten aurkeztu beharko da. Gutun-azal handi batean, kanpoaldean "Karmen jaiak 2019 kartel lehiaketa" eta goitizena idatzita. Gutun-azal honen barruan lana gordetzen duen pendrive/usb-a sartu eta beste beste txiki baten egilearen datu hauek jarri beharko dira: izen- abizenak, helbidea eta telefonoa. Artxibo digitalaren izena goitizena izango da.

Lanak aurkezteko epea:

- Maiatzak 29, eguerdiko 14:30ak arte.

Epaimahaia:

- Epaimahaia Udalak eta Jai batzordeak osatuko du.
- Epaimahaiaren erabakia ekainaren erdialdera jakinaraziko da (aurrerago zehaztuko da eguna) eta ezingo da apelaziorik aurkeztu.
- Lanen kalitatea behar bestekoa ez bada, epaimahaiak saririk ez ematea erabaki dezake.

Sariak:

- **1. saria:** 16 urtetik gorakoentzat izango da aurtien. Jaietako programaren portada + 150 euro.
- **2. saria:** 16 urtetik beherakoentzat. Jaietako programaren kontraportada + 150 euro.

Sari banaketa:

- Jaietako egitaraua kaleratzen denean egingo da sari banaketa ekitaldia (aurrerago zehaztuko da eguna).

Lanen jabetza:

- Udalak eskuratuko du saritutako kartelaren jabetza eta eskubidea izango du hau argitaratzeko, zabaltzeko, etab. Epaimahaiaren ebazpena ezagutu arte lanak Udalarenak izango dira eta honek izango ditu lanei dagozkien jabetza intelektualaren eskubide ekonomikoak. Gainera, Udalak nahi duen erabilera emango die artelanei, hau da, artelanak erreproduzitu, banatu, hedabide publikoetan zabaldu... ahalko ditu, egungo edozein medio, euskarri edo formaturen bidez, edo etorkizunean garatuko direnen bidez.
- Irabazlea ezagutarazi eta hilabete batez, epaimahaiaren iritzia adierazten duen biharamunetik kontatzen hasita, saritu gabeko lanak egileen esku geratuko dira. Epe horretan, egilea edo egileak baimendutako norbait aurkeztuko da udaletxean lanaren bila. Aipatutako epea bete eta lanen bila inor etorri ez bada, egileek lanen gain dituzten edozein eskubideei uko egiten dietela ulertuko da eta Markina-Xemeingo Udala izango da jaso gabeko lan horien jabe.
- Jasotako kartelak arretaz zaindu eta gordeko ditu Udalak, baina ez du erantzukizunik izango jaso direnetik itzuli direnerarte lanek jasan ditzaketen kalteez.
- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea eskatzen du.
- Udalak oinarri hauetan jaso ez direnak arautzeko eskubidea du eta ezingo da Udalak hartutako erabakien aurkako erreklamaziorik aurkeztu.